

**GABRIEL PEDROS.**

Pelotari au zer dan  
 Bear det gaur esan,  
 Ez dakiyen guztiyak  
 Ondo jakin dezan;  
 ¿Urak indarra nola  
 Izan oi du presan?  
 Ala dauka, besotik  
 Nekez dediñ etzan.

Oso errej jasorik  
 Chisteraz pelota,  
 Goratuaz, atzera  
 Gogor oi du bota;  
 Urak ibiltzen duben  
 Bezela errota,  
 Ibiltzen du pelota  
 Indarrez jasota.

Trebetasun guchiko  
 Besagaña dauka,  
 Bañan biurrez bere  
 Ordaña badauka;  
 Plazan salto aundiayak  
 Egiñikan lau-ka,  
 Arrapatzten du bere  
 Erosozko mauka.

Joerarik onena  
 Du beso biurrez,  
 Zeñak asko jarri oi  
 Dituben bildurrez;  
 Ibilli da legorrez  
 Bai ta ere urez,  
 Betetzeko asmoan  
 Patrikarak urez.

JUAN IGNACIO URANGA.

